



## DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2016

### **TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA**

1. Hirigune - Hiri merkataritzaren lankidetzaren dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntza-programa ..... 2
2. Merkataritza saltokien modernizazioa bultzatzeko programa ..... 3
3. Merkataritzako bulego teknikoetarako laguntzak ..... 4
4. Merkataritza banaketaren dinamizatzailerak (bekadunak) prestakuntzarako laguntza programa 5
5. Ezagutza, berrikuntza eta merkataritza-lehiakortasuna sustatzera eta hedatzera bideratutako laguntzak (dibulгатibak) ..... 6
6. Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzen programa ..... 7
7. Turismo enpresen lehiakortasuna modernizatzen eta hobetzen laguntzeko programa ..... 8



## 1.- Izenburua

**Hirigune - Hiri merkataritzaren lankidetzaren dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntza-programa**

## 2.- Araua

AGINDUA ETA DEIALDIA, 2016ko uztailaren 8koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Hiri Merkataritzaren Lankidetzaren, Dinamizazio eta Lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntzen Hirigune programa arautzen duena.

## 3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen eta Merkataritza Enpresen arteko lankidetzaren egitura publiko eta pribatuak sortzeko aukera bultzatzea, udal-inguruneetako hiri-ekonomiako eremu gisa balioa emango dieten zonako estrategiak garatzearen.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programaren helburua zera da, hiri-inguruneetako merkataritzaren lankidetzaren dinamizazioa eta estrategiak garatzen laguntzea, suspertu beharreko hiriguneetako merkataritza-lehiakortasuna eta posizionamendua hobetzera bideratutako estrategiak, alegia.

2016an, guztira merkataritza 77 elkarterek aurkeztu zituzten eskabideak, 515 jardueraren gauzatzeko. Horietatik 77k jaso dute laguntza, eta merkataritza suspertzeko 472 jardueraren gauzatu dira. Programari 1,45 milioi euroko diru-dotazioa esleitu zitzaion, eta horrek 1,77 milioi euroko inbertsioa sorrarazi zuen.

Udalei dagokienez, 52 Udaleren aurkeztu zituzten eskabideak 70 jardun egitaritzeko. Udaleren horietatik 51ek jaso dute laguntza, eta 66 jardun gauzatu dira. Jardun horiei 1,22 milioi euroko zenbatekoa esleitu zitzaion, eta horrek 11,02 milioi euroko inbertsioa sorrarazi zuen.



## 1.- Izenburua

**Merkataritza saltokien modernizazioa bultzatzeko programa**

## 2.- Arau erregulatzaileria

AGINDUA, 2014ko ekainaren 25ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita merkataritza-saltokiak modernizatzeko laguntza-programa. (uztailaren 2ko EHAA, 124 zk.koa), agindu hori 2015eko ekainaren 24ko Aginduak (ekainaren 26ko EHAA, 199 zk.koa) aldatu zuen.

EBAZPENA, 2016ko martxoaren 2koa, Merkataritza eta Turismoko Sailburuordearena. Honen bidez, argitara ematen da merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntza-programan ezarritako diru-laguntzak 2016eko ekitaldian emateko deialdia. (Martxoaren 4ko EHAA, 44. zk.koa).

## 3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da Erkidegoko merkataritza-establezimenduen modernizazioa sustatzea, berrikuntzaren, establezimenduen kudeaketa-tresnen hobekuntzaren eta establezimenduen azpiegituren bidez. Merkataritza-jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren obra zibila, altzariak eta ekipamendua dira diru-laguntzaren xede.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016eko ekitaldian 1.385 eskaera aurkeztu ziren guztira (Arabak 154, Bizkaian 617 eta Gipuzkoan 614), eta horrek 27.900.733,25 euroko inbertsio induzitua eragin zuen.

1.152 eskaeratan eman zen aldeko ebazpena, eta guztira 3.272.573,03 euro banatu ziren diru-laguntzetan.



## 1.- Izenburua

**Merkataritzako bulego teknikoetarako laguntzak**

## 2.- Araua

Agindua, 2010eko urriaren 20koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, Merkataritza Dinamizatzeko Bulegoetarako laguntzak ezartzen eta arautzen dituen, 2014ko ekainaren 26, 2015ko uztailaren 28, eta 2016ko uztailaren 1ko Aginduez aldatuta.

Ebazpena, 2016eko uztailaren 11koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Merkataritzako Bulego Teknikoetarako 2016ko ekitaldiko laguntzak emateko deialdia.

## 3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Merkataritza-banaketaren sektoreari, langile kualifikatuen bidez eta doan, laguntza teknikoko zerbitzua ematea da programaren helburua. Laguntza hauen erakunde onuradunak merkatarien elkarte, federazio edo taldeak, Udalak edo Udalek sustatutako garapen-erakundeak izan daitezke.

Merkataritzako bulego teknikoen bidez, aholkularitza espezializatua eskaini, berrikuntza, kalitatea eta teknologia berriei lotutako prozesuak bultzatu eta udal-mailan edo banaketa-katean lankidetzaz-estrategiak sustatu nahi dira.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdiaren ebazpenaren arabera, 2016ean programa honetarako bideratutako kreditua 1.309.000,00 euro izan da.

Lurraldeka, hauek dira aurkeztutako eskabideen kopuruak: 4 Araban, 17 Bizkaian eta 14 Gipuzkoan.



## 1.- Izenburua

**Merkataritza banaketaren dinamizatzailen (bekadunak) prestakuntzarako laguntza programa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2011ko ekainaren 15ekoa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, merkataritza-banaketaren dinamizatzailak prestatzeko laguntzen programa arautzen duena (ekainaren 28ko EHAA). Agindu hori Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren 18ko Aginduaren (2014ko ekainaren 27ko EHAA) bidez aldatu zen.

EBAZPENA, 2016ko apirilaren 20koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, merkataritza-banaketarako dinamizatzailak prestatzeko bekak emateko deialdia argitara emateko dena, 2016ko ekitaldirako. (maiatzaren 18ko EHAA).

## 3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua merkataritza-banaketan espezializatutako teknikarien prestakuntza da. Horretarako, 180 orduko prestakuntza teorikoko ikastaro bat eskaintzen da; dagokigun sektorean espezializatutako pertsonak ematen dute ikastaroa eta orain arte Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak antolatu izan du, betiere gaien espezializatutako irakasleen nahiz merkataritza-banaketaren sektoreari lotutako irakaskuntzatik kanpoko pertsonen laguntzarekin.

Laguntzen esleipendunak batez ere Merkataritza Dinamizatzeko Bulegoetara edo banaketaren arloarekin zerikusia duten erakundeetara bideratzen dira urtebetez. Erakunde horietan garatutako lanarekin eta jasotzen duten prestakuntza tutorizatuarekin jakintza-maila handia lortzen dute merkataritza-banaketaren sektorean, prestakuntza teorikoa prestakuntza praktikoarekin osatuz. Egindako lanaren ordain gisa, 15.000 euroko beka jasotzen dute.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

Programa honen bidez 25 unibertsitate tituluduni merkataritza-banaketaren eremuan espezialistak izateko prestakuntza eskaintzen zaie eta kasu askotan, euren etorkizun profesionala sektore horretara bideratzen dute. Horrek eragin mesedegarria du sektorean, eremu horretako profesional kualifikatuak izatea hain zuzen.



## 1.- Izenburua

**Ezagutza, berrikuntza eta merkataritza-lehiakortasuna sustatzera eta hedatzera bideratutako laguntzak (dibulгатibak)**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2015eko irailaren 30ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuarena, ezagutza, berrikuntza eta merkataritza-lehiakortasuna sustatzera eta hedatzera bideratutako laguntza-programa arautzen duena (EHHA, urriaren 9koa).

EBAZPENA, 2015eko otsailaren 10ekoa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, ezagutza, berrikuntza eta merkataritza-lehiakortasuna sustatzera eta hedatzera bideratutako laguntzak emateko deialdia jakitera ematen duena, 2016ko ekitaldirako (EHHA, otsailaren 17koa).

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen helburua da: berrikuntza eta enpresa-lehiakortasuna hedatzeko eta hobetzeko jarduerak sustatzeko programa arautzea, baita merkataritza-sektoreko negozio-joera berriak ezagutzea ere, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren 2013-2016rako Jarduketa Planean zehaztutako helburuekin bat.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurkeztutako 26 eskabideetatik 20 izan dira onuradun dirulaguntzen programa honen bidez, eta huek 57.035,34 euro jaso dituzte.



## 1.- Izenburua

**Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzen programa**

## 2.- Arau erregulatzaileria

Agindua, 2016ko apirilaren 20koa, Ekonomikaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuarena, 2016ko ekitaldirako lurralde proiektu turistikoetarako laguntzak arautzen eta iragartzen dituena (2016ko maiatzaren 3ko EHAA, 82. zk.).

## 3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko eta pribatuentzako programa, erakunde horien helburuen eta/edo ahalmenen artean badago turismo-jarduera garatzea eta sustatzea, EAeren turismo-lehiakortasuna sustatzeko, itzulgarriak ez diren diru-laguntzak baliatuta honako hauen moduko proiektuak egiteko:

- a) Turismoko lurralde-proiektuak helmugan erakargarritasuna hobetzen dutenak.
- b) Berrikuntzaren bidez eta turismo jasangarria eta arduratsua garatuz, helmugan kalitatea eta lehiakortasuna hobetuko duten proiektuak:
  - Basquetour SAK sustatutako eta kudeatutako helmugan lehiakortasuna hobetzeko proiektuak.
  - Kalitatearen kudeaketako eta ingurumen-kudeaketako erreferentzialak ezartzeko proiektuak.
  - Jasangarritasuneko erreferentzialak ezartzeko proiektuak.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak hauek izan dira:

<i>Jarduketak</i>	<i>Onartuak</i>	<i>Emandako diru-laguntza</i>
Turismoko lurralde-proiektuak helmugan erakargarritasuna hobetzen dutenak	31	1.113.911,80 €
Basquetourrek sustatutako eta kudeatutako helmugan lehiakortasuna hobetzeko proiektuak	22	163.114,75 €
Kalitatearen kudeaketako eta ingurumen-kudeaketako erreferentzialak ezartzeko proiektuak	5	2.973,45 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>58</b>	<b>1.280.000,00 €</b>

Aurrekontuaren egikaritzea % 100ekoa izan da.



## 1.- Izenburua

**Turismo enpresen lehiakortasuna modernizatzen eta hobetzen laguntzeko programa**

## 2.- Arau erregulatzaileria

AGINDUA, 2016ko apirilaren 6koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuarena, turismo enpresen modernizazioari eta lehiakortasunaren hobekuntzari laguntzeko 2016ko ekitaldirako laguntzak arautu eta deitzen dituen (2016ko apirilaren 11ko EHAA, 67. zk.).

## 3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da turismo-enpresei hobetzen laguntzea honako hauek lortzeko: bezeroei eta merkatura bideratutako kalitatezko turismo-eskaintza lehiakorrago bat garatzea; IKT informazioaren eta komunikazioaren teknologiak jartzea eta ezartzea enpresen eta bezeroen arteko interakzioa eta turismo-negozioren eraginkortasuna hobetzeko; turismoko enpresa, zerbitzu eta produktu berriak sortzea eta ezartzea, merkatuan berritzaileak izango direnak eta/edo hainbat enpresaren arteko lankidetzatik eta baterako ekimenetik sortuko direnak. Hori guztia lortzeko, kontuan izango dira gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-jasangarritasunaren irizpideak.

Horretarako, EAEn kokatutako enpresen jarduketak babesten dira, honelakoak izanez gero, edo aipatzen diren helburuak izanez gero:

- Ekimen berritzaileak turismoaren sektorean.
- Turismo-eskaintza modernizatzea, lehiakorragoa izan dadin.
- Turismo-establezimenduak indarrean den irisgarritasun-araudira egokitzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan turismo-sektorean diharduten eta kokatuta dauden enpresa eta establezimenduetan, ingurumenaren kudeaketa eta kalitate-kudeaketa ziurtatu dezaketen sistemak ezartzea.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizarte

Honako hauek izan dira emaitzak:

Tipologia	Neurriak			Aurrekontua		
	Aurreikuspena	Egikaritzea	Aldakuntzaren %a	Aurreikuspena	Egikaritzea	Aldakuntzaren %a
Berrikuntza	60	45	-25	242.000	155.990,27	-35,54
Modernizazioa	70	87	24,29	398.190,96	508.740,41	27,76
Irisgarritasuna	5	3	-40	30.000	33.315,28	11,05
Kalitatea	8	1	-87,5	28.000	145	-99,48
<b>Guztira</b>	<b>143</b>	<b>136</b>	<b>-4,90</b>	<b>698.190,96</b>	<b>698.190,96</b>	<b>0</b>





Aurkeztutako 176 eskaeretatik 145 onartu egin dira. Horietatik 9 eskaerari ezezkoa eman zaie “eskaintzaren modernizazioa” laguntza lerroan ez delako krediturik egon, aurreko deialdietan gertatu den moduan; izan ere, laguntza eskaera kopururik altuena lerro honek eskuratzen ditu.